BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

2127

AGINDUA, 2012ko martxoaren 26koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Fundación Arangoiti fundazioaren estatutuetan egindako aldaketak onetsi eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Ikusi da –eta aztertu– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko egindako eskabidearen espedientea. Hona hemen

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2011ko uztailaren 1ean, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren Erregistroan eskari bat sartu zen, fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa batzuk inskribatzeko zena.

Eskari horrekin batera, estatutuak aldatzeko eskritura publikoaren kopia baimendu bat, bi kopia bakun eta bi fotokopia aurkeztu dira. Eskritura 2011ko maiatzaren 24an eman zen, Beasaingo jarduneko alkate eta fundazioaren patronatuko lehendakariaren eskutik, Beasaingo notario Mariano Pablo Melendo Martinez jauna aurrean zela (protokolo-zenbakia: 912).

Aipatutako eskritura publikoarekin batera, ziurtagiri bat aurkeztu da, Karmele Elola Loidi idazkariak 2011ko martxoaren 4an emana, patronatuko lehendakariak 2011ko martxoaren 3ko bileran emandako oniritzia duela. Egun hartan, bertaratutakoen gehiengo bakunez onartu zen fundazioaren estatutuetako 11., 27., 30., 31., 32. eta 34. artikuluak aldatzea.

Ziurtagirian, aldatutako artikuluen osoko berridazketa jasotzen da, bai eta fundazio-estatutuetako testu bategina ere.

Bigarrena.– 2012ko martxoaren 22an, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren Erregistroan eskari bat sartu zen, fundazioaren patronatuan egindako aldaketa batzuk inskribatzeko zena. Eskaria Elena Lopategi Irastorza andreak sinatzen zuen, Arangoiti fundazioaren izenean.

Eskariarekin batera, Koldo Agirre Mugikak 2012ko otsailaren 23an emandako beste eskritura baten osagarria eta berrespena den eskritura publikoaren bi kopia baimendu eta bakun bat aurkeztu dira. Koldo Agirre Mugikak fundazioaren izenean eta ordez sinatu zuen beste eskritura hura, patronatuko lehendakaria zen aldetik, eta Beasaingo notario Mariano Pablo Melendo Martinez jauna aurrean zela (protokolo-zenbakia: 268).

Eskritura publiko horri erantsita, honako dokumentu hauek doaz:

– Ziurtagiria, Beasainen 2011ko urriaren 6an Karmele Elola Loidi fundazioko idazkariak emana, eta fundazioko lehendakariaren oniritzia duena. Ziurtagiri horretan jasota dago 2011ko irailaren 21eko bileran Koldo Agirre Mujika eta Iñaki Saldaña Herrero jaunek onartu zituztela fundazioko patronatuan dituzten kargu berriak.

– Ziurtagiria, Itziar Arostegi Apaolaza Beasaingo Udaleko idazkariak emana. Ziurtagiri horretan jasota dago Koldo Agirre Mugika jauna Udalaren 2011ko ekainaren 11ko eratze-batzarrean izendatu zutela alkate-udalburu, eta Iñaki Saldaña Herrero jauna dela Udalaren Gizarte Ongizateko Batzordeko burua, hala izendatu baitzuten alkatearen 2011ko uztailaren 21eko Ebazpenaren bidez.

– Ziurtagiria, 2012ko urtarrilaren 12an Karmele Elola Loidi fundazioko idazkariak emana, eta fundazioko lehendakariak 2011ko irailaren 21eko bilerari buruzko oniritzia duena. Bilera hartan, bertaratuen gehiengo bakunez onartu zen fundazioaren estatutuetako 12. artikulua aldatzea. Aldatutako artikuluaren idazketa berria jasota dago.

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek aztertu dute espedientea, eta ondoren, erabaki-proposamena egin dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak eman behar du, agindu bidez, estatutuak aldatzeko espediente honi buruzko ebazpena, honako arau hauetan hala ezarrita baitago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzari buruzko Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikulua; Lehendakariak 2009ko maiatzaren 8an Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko eman zuen maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 9.1.e) artikulua; eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeari buruzko abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 4.1 artikulua.

Bigarrena.– Espediente honi funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta, bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 44. artikuluan eskatutakoak; aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat dator aldaketa.

Aipatu manuak eta aplikatu beharreko gainerako arauak ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Fundación Arangoiti fundazioaren estatutuetako 11., 12., 27., 30., 31., 32. eta 34. artikuluetan egindako aldaketak onartzea.

Bigarrena.– Fundazioaren estatutuen aldaketa hori inskribatzeko agintzea, agindu honen datarekin, eskritura publikoan ezarritakoaren arabera. Eskrituran jasota dago zein diren aldatutako artikuluak. Eskritura 2011ko maiatzaren 24an eman zuen Francisco Plazaola Muguruza Beasaingo Udaleko jarduneko alkate-udalburu eta fundazioko patronatuko lehendakariak, Beasaingo notario Mariano Pablo Melendo Martínez jauna aurrean zela (protokolo-zenbakia: 912). Eskritura notario beraren aurrean (protokolo-zenbakia: 268) 2012ko otsailaren 23an emandako eskritura baten bidez osaturik dago.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio; beraz, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa

aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 26a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.